

## ***Ikastetxe batetik premiaz atera behar denean ikasleentzako argibideak.***

1. Ikasleek beren irakaslearen argibideei egin beharko diete kasu eta ez dituzte inoiz ere beren kabuz erabakiak hartuko.
2. Beren irakasleak funtzio zehatzak eman dizkien ikasleak funtzio horiek betetzeaz arduratuko dira eta taldean ordena izateko lagundu beharko dute.
3. Ikasleek ez dituzte gauza pertsonalak jasoko, oztopoak eta atzerapenak ekiditeko asmoz.
4. Alarma entzutean, beren taldera azkar sartu beharko dute komunetan eta ondoko lokaletan dauden ikasleek. Beste solairu batean egonez gero, hurbilen duten taldera sartuko dira eta, kanpora irten direnean, beren taldea bilatu eta berorretara sartuko dira. Irakasleari adieraziko diote.
5. Mugimendu guztiak azkar eta era ordenatuan egin beharko dira, inoiz ere ez korrika, bultzaka edo besteak zapalduz.
6. Inork ez du irteteko ateen ondoan gelditu beharko.
7. Ikasleek isilik, era ordenatuan, arrapaladan ibili gabe eta zailtasunak dituztenei edo erortzen direnei lagunduz irten beharko dute ikastetxetik. Ebakuazioa hiru ilaratan, gehienez ere, egingo da, bi alboetatik eta bat erditik.
8. Ebakuazioan eskola-altzariak eta ekipamendua errespetatu beharko dira.
9. Ebakuatzeko bideetan irteera eragozten duen oztoporen bat izanez gero, ikasleek kenduko dute, ahal izanez gero pertsonak erori gabe eta objektua hondatu gabe.
10. Ikasleak ez du inoiz ere atzera joan behar, zeinahi dela aitzakia.
11. Taldeak betiere batuta egongo dira, ez dira sakabanatuko eta aurretik ezarritako kanpoko tokian kontzentratuko dira, irakasleak ikasleak errazago kontrolatzeko asmoz.
12. Lurreratze edo leherketaren kasuan areto batzuk zeharkatu behar izanez gero, hormetatik hurbil pasa beharko da, inoiz ere ez haien erditik.
13. Kez betetako tokietatik pasa behar izanez gero, arnasbideak zapi bustiekin babestu beharko dira. Kea handia izanez gero, ez da toki haietatik pasa behar.

14. Pasabideak eta eskailerak kez gainezka baldin badaude, taldeak gelan egon behar du, ate eta leihoak itxi eta ateen junturetan zapi bustiak jarri beharko dituzte, kea ez sartzeko. Leihoetatik kanpokoei deituko zaie.

15. Sotoak edo lurpeko igarobideak ebakatu behar izanez gero, betiere gorantz egingo da, inoiz ere ez beherantz.